




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)  
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

SARRERA-ENTRADA	 GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA
	2006 MAI. 05 MAY. 05
	Zk. / N.º 1654
Esp. Exp.	07 / C / 12 / 1443

## MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak, Aralar Taldeko Batzarkidea, Batzar Nagusietako Araudiari jarraikiz, Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izendatzeari buruzko Ez Arauzko proposamena aurkezten du Giza Eskubideetako eta Enplegurako batzordean eztabaidatua izan dadin

## ZIOA

1990eko maiatzaren 17an Osasunaren Munduko Erakundearen Batzar Nagusiak ezabatu egin zuen homosexualitatea gaixotasun mentalen zerrendatik. Ezabatze horrekin amaitu zen ia mende bat iraun zuen osasun arloko homofobia eta gay, lesbianen eta bisexualen aurkako diskriminazio sistematikoa.

Halere, ezin esan daiteke nazioartean gutxiengo sexuales bizi duten egoera ona denik. Gutxienez, 9 herrialdetan hiltzera zigortzen dituzte homosexualak, bisexualak eta transexualak. Munduko herrialde guztien artetik, erdiak baino gehiagok nazioarteko itun guztiak hausten ditu, eta sistematikoki egiten dio uko Giza Eskubideak errespetatzeari, baita oinarri – oinarritzkoenak ere.

Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako Nazioarteko Egunarekin lortu nahi da Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi – komisarioak eta Nazio Batuen Giza Eskubideen batzordeak homofobia eta transfobia gaitzetsi ditzaten egiten dituzten adierazpen politiko, sozial eta kulturaletan. Osasunaren Munduko Erakundearen erabakiarena egun historikoa da, eta mugarri garrantzitsu bat gay, lesbianen, bisexualen eta transexualen duintasuna aldarrikatzeko borrokan.

## EZ ARAUZKO PROPOSAMENA

1.-Diskriminaziorik ezaren printzipioa Oinarrizko Eskubideen Gutunaren printzipio nagusietako bat da, eta Batzar Nagusiek printzipio hori babestu eta horren alde egiten dute.

2.-Batzar Nagusiek bat egiten dute maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako borrokaren Nazioarteko eguna izendatzeari aldeko ekimenarekin, sexu-orientazio eta genero-identitatea gorabehera pertsona guztien eskubide parekotasuna lortzeko eta sustatzeko borondatearen ikur gisa.



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Misto (ARALAR)  
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

3.-Batzar Nagusiek elkertasuna adierazi nahi diete, sexu-orientazioa eta genero-identitatea dela eta mundu osoan zehar diskriminazio larria jasaten duten miloika pertsoneri, eta dei egiten diete herritar guztiei, eta, bereziki, gainerako erakunde publikoei, homofobiaren eta transfobiaren kontra lan egin dezaten.

4.-Batzar Nagusiek Espainiako Estatuko Gobernuari eskaera egiten diete maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren kontrako Borrokaren Nazioarteko Eguna izendatzea eska diezaion Nazio Batuen Erakundeari.

Donostian, 2006ko maiatzak 5

Rebeca Ubera Aranzeta  
ARALAR BATZARKIDE TALDEA-